


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

164n. Zenbakia Bagilla-Ekainilla
1992



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



Oleaga'lar Jesus Jauna
Euskerazaleak Alkartearren Lenengo Lendakaria

ZIDARREZKO EZTEGUA:

ASTEA: ESKOLAPIOETAN
IL ONEN 15'etik 19'ra, 8'retan
OSPAKIZUNA: 20'an, LARUNBATA
ORDU BATETAN MEZEA SAN ANTON'en
ORDU BIETAN BAZKARIA
(DEI-TXARTELA ESKATU)

IZAN EUSKALDUN GAUR

IZENA ETA IZANA

Gure abenda eta ahizena euskal-izatearen ezaugarri argia dogu.

Izan euskaldun gaur. Nortzuk eta zer gara euskaldunak? Eta zer egin bear dogu benetako euskaldunak izateko?

Arrokeri barik esan dagikegu Euskal-erriak, eta euskotar geienak, aipu ona izan dogula Iurbira osoan, eta baita be onartuak izan nun nai. Zergaitik? Gure asaba zaarrak euskal-izena eta izana gorengo maillan ipiñi ebelako euren izakeru, bizikera eta eginkizun aipagarrien bidez.

Euskal giza-emakumeari jatorriz eta barru-barrutik datorkio bere leialtasuna eta zindotasuna. Ori argi eta garbi adierazoteko zintzo jokatu, sendo ekiñ, egizale eta baikorra izan bear da eginbide eta jokabide guztietan.

Gure entzumenera, beiñ baño sarriago, etorri da esakun zaar oneen otsa: "Onak dute alegrantziaren izena eta izana" (Gero). "Izena aundi, izana txiki". "Izena bat eta izana beste bat". Argi eta garbi ikusten dogu, ba, izena eta izana kidekoak izan bear dirala, eta alkarrekin autsi eziñeko lotura euki bear dabela. Ortik sortu da eziñ ukatu, gure arbasoen ospe eta entzute ona. Ondo jokatzek damotso izateari bere jatortasuna. On-egiñen bidez lortzen da izenik goragarriena. Izena daben guztiak izatea bere badauke.

EUSKO NORTASUNA

Giza-emakume zintzoen ezaugarria nortasuna dala uste dogu. Pertsona baktzat, eta era berean, erriak bere nortasuna euki bear dau, ondar moltzoa izan gura ezpadau. Nortasun bako erria. aizean dabillen orria!

Nundik datorkio Euskal-erriari bere nortasuna? Lenen eta bein euskeratik. Euskera izan da gure izatearen muiña, gure biotzean eta odolean ondo josia, eta gure erraietan bizi-bizi sustraitua. Naiz eta ainbat izkuntza eder eta ospetsu betiko illuntasunean murgildu, gure euskera oraindtkan bizirik dago.

Gure artean esakun au sarri entzunda daukogu: "Euskotarra lur ontan jaioa dala, eta euskalduna euskeraz dagiana". Euskalduna eta euskera ari batekoak dituzu. Eta euskera ez dagianari "euskaldun motz, motz" esaten jako.

Eusko izatetik datoz, gañera, ainbat onbide eta eragite goresgarriak: gizatasuna, jatortasuna, leialtasuna eta ekin-tasuna. Ara or Bolibar, Elkano, Loiola eta Xabier. Eta nork ukatu? Euskaldun, fededun. Egi sakon ori egiazta-tzeko irakurri egizuz gogo beraz Auñemendiko Lorea, eta

oraintsu argitaratu dan YANOZ elebarria. Irakurgai bi onetan ikusten dira oso argiro gure kristau sinismenaren sustraiak, eta Euskal-erriaren alde egindako gertakizun goragarriak. Kristau fedeak bultzatuz lortu eban gure erriak bere batasuna, jauntxukeriak bigundu, gorrotoak ezereztu, eta arrokeriak azpiratu. Euskerak eta fedeak emon eta indartu dabe beti gure nortasuna.

GAURKO GORA-BERAK

Gaurko gizartea, gizarte oso politikoa dogu. Baditugu gure artean, arlo ontan, gizon burutsuak, zoli eta zorrotz ekiten dakienak. Baña, zer esan bear? Politika-jokabidea norberia egin jaku, alderdikeria. Norberia au dala-ta gure erriaren gidariak zatituta ikusten doguz, eta zatiketara daroe erria. Zatiketa aspergarri ontatik aldatz-gorako bide nekegarria dauko Euskadi maiteak. Oso egokiro datoz emen Kristo gure maixuaren berbak: "Bere aurka diarduan erriak lur joko dau, eta bere aurka burrukan dabillen erri eta etxeak ez dau iraungo".

Aurtengo Aberri eguna ospatzean zelan jokatu dabe gure erri-gidariak? Egunkarietan geien nabarmendu dan auzia auxe izan da: alderdikideak danak danen kontra ekitea, danak aurrez-aurre jokatzeta. Ori al da Aberria goratzea?

Gure Aberriaren orclu larri ontan guztiok, ostera, gogoan erabilli bear genduke Euskadiren ardura eta arzoa, bere aurrerapena. bere ohekuntza. Aherriaren onagaitik amor egin hearco doguz, gure uste ta eritxiak, gure irudimen eta ikuspideak. "Batzuk hesteak baztertuz, batzuk besteen kontra ekiñik ezin da erri au jaso" (M. Atxaga). Euskal erriak guri eskatzen daukun atsegin-saria eta doairik onena eta bearrezkoena. euskaldunen batasuna dogu. Azkenengo urteetan gure Aberriak ikaragarritzko kalteak izan ditu bere seme askoren erruz!

Aberria alderdi guztien gaiñ dago, eta berari men egitearren gure buruak sarritan makurtu bear. Gure buruak urritu eta Aberria indar-herritu!

Aberriaren aurrean, guztiak batean, erakutsi daigun ordu larri ontan, gure hiotz zabalaren aberastasuna. Izan gaitzen euskaldun jator, leial ta biotzdun.

BERTSO BEROAK

**JUAN MARI GOTZAIÑARI AGURRA
(BEGOÑA 'N)**

Gotzain bioen ardurapean
Bizkaiko eleiz-txalupea,
beti ibilli da uran gañean
beti beti azalean;
naizta sarritan aurkitu izan
olatu gogor artean;
on dala'ta eskerrikasko
bioi erdi bardiñean,
emon bearra gaur illuntzean
bizkaitarron izenean,
bene-benetan maite zaituguz,
danok, biotz barrenean.

Aita Santuan nonbramentuaz
bazuaz Zamora aldera,
gure Gotzaiñan laguntzallea
zeure ardiak zaintzera,
on dala'ta emen gaukazuz
zuri agur egitera;
illuntze ontan bizkaitar asko
eldu gara Begoñara,
esker oneko agertu nairik
zugaz batera eskatzera:
"Zaindari Maite" lagun eiozu,
baita bedeinka Zamora.

AGUR BALENTIN BERRIOTXOA

Agur Balentin Berriotxo
bizkaitar danon Zaindari,
Elorrioko seme zintzoa
erregu Jainko Aitari,
izan dagigun Bizkai osoan
bake santua ugari.
Beti maitatuz eusko-gogoa
bildurrik barik ñori,
bizi gaitezen kristau fedean
zoriontsu ta pozgarri

ADIMENAREN GARALLE - BIOTZ MAITASUNA

Atzerritik datorkit
neure senargaia,
itsututa zegonik
enekian, baia,
bete bedi gurekin
Jaungoikoaren naia;
ai izango baziña
odoleko anaia.

biotza zuretzat,
bakea niretzat,
alkar biziko giña
bakotxa beretzat,
ezkonduta oster
bata besterentzat.

Zugaz izango nintzan
zorion betiko,
agur, banua, baña
ezaitut aztuko;
ezaitut, ene maite,
sekula iñoiz aztuko,
biotz-barruko begiz
zaitut ikusiko,

gazte, lirain, lerdin,
gazte, lirain, lerdin,
arpegiko begiakin
ikusit ezarren,
arpegiko begiakin
ikusit ezarren.
Biziko naz zurekin
luzaro luzaro;
Jaunanlaguntasuna
izango da oparo;
alkar biziko gara
orain eta gero,
al dala baketsu,
al dala baketsu,
senar-emazte moduz
beti zoriontsu.

GURE DEIA

"Euskerazaleak"en batzordeak dei egiten dautsue, alkartearen bazkide guztioi, gure erakundearen Zidarreko Ezteguan tartekoak izan zaitezten.

Sortu zanetik ona, "Euskerazaleak" ez dau lan makala egin. Millaka dira epe orretan euskera ikasi dabenak, beste iñon ori egiteko aukerarik ez egoanean, orretarako ikasbide ta irakurgaiak argitaratuz. Euskereari eusteko, gure "ZER" illerokoak guztitariko gaiak eskiñi dautsuez etenbarik, euskera errikoi ta errazaz, bide erakutsiz zelako euskerea erabilli bear dogun, ulerkoia ta atsegiña izan daiten.

Orain 25 urte, eskukada euskaltzale batek sortu eban gure erakundea, euskerarekiko girorik ez egoanean. Bai, gitxi batzuk sortu eben gure erakundea, amaika oztopo ta arduraezak garaiturik, eta ordutik ona, Bilbao'ko ta onen inguruetakoko lagun asko euskaldun biurtu dira, izan be, gur aberriari eskiñi dagikeon aalegiñik benetakoena.

Ori dala-ta, guztioi dei egiten dautsuegu ospakizun orretan tartekoak izan zaitezten Eskolapioen ikastetxean, il onetako 15'tik 19'rarte izango dan "Euskal Astea"n, eta 20'ean (Larunbatean) San Anton'en ordu batetan ospatuko dan mezatara, eta jarraian lagun-arteko bazkarira.

Edozein batzordek aurrera ekiteko, bazkideen laguntza ta adorea bear dauz, eta geuk bene-benetan zuen laguntza ori bear dogu, euskerearekiko dogun eginkizuna aalik ondoen bete aal izan dagigun; gure bizkaiera ain zapuztua danean batu gaitezen iñoizkorik kementtsuen, eta zin egin dagigun aurrera joateko gure arbasoen izkuntzaren ald.e

Biotz-biotzez eta aurretiaz gure eskerrik andiena.

ZUBIRI'TAR IÑAKI

EUSKERAZALEAK

(25 URTE)

OSPAKIZUNA: BAGILLAREN 20'an

BERBALDIAK: 15'etik 19'ra ESKOLAPIOETAN (BILBAO'n)

(EGIN IRRINTZI ETA AURRERA)

MUNGIA'N EGUN GOGOANGARRIA

OLAZAR'TAR MARTIN'en SARRERA-IT7,ALDIAN

Euskerazaintza, Euskerazaintza,
zorioneko lorea,
euzko izkuntza zaindutearren
agerturiko taldea;
gure izkuntza ezpaitan egon,
neke samañez hetea,
orra semeak eta alabak
zaintzen zure hizitzea.

Zure hitxiak agertzen dator
Olazar'eko semea.
ain zara eder, ain aheratsa,
izkuntza czin ohea;
Aurrera Martin, hatu ta landu
euskeraren arnasea.
hedeinkatua izan dedilla
euskaldunen lurraldea.

Munduak mundu dirauan arte
iraun daiala euskerak,
here semeak izan daiezan
sortzetikojas garhiak;
itzez ederra, zentzunez aundi,
joskerak zoragarriak,
euzko lur onek inerezidu dauz
Euskerazaintzaren lanak.

Lendakaria zara zu, Martin,
tegi onen izenean,
jaurbide legez, jokatu gogor
euskeraren ontenean;
izkunV eder hat, sendo ta garhi
izan dagigun lurrean,
izarrak legez argi egiten
euzkotarren hatzarrean.

Euzkotar serne eta alaha,
dei dagitzue izkuntzak,
gure arhaso aintzagarriak
sortu chen arnas -otsak;
ekin ta jarrai al dan artian
indartzen Aitorren itzak,
erri jator ta izkuntz eder hat
izan daizan euzkotarrak.

EGUN BERATAN BAZKAL-OSTEAN

Gaurkojaiari omenaldia
gaurko lanari saria,
gure izkuntzak merezidu dau
orrenhesteko zoria:
tiriki tiki tiriki tauka
mailluaren ots zolia,
gure izkuntzak artu daiala
Euskalerra lur guztia

Gaurko batzar au zoragarria
izan da gure artian:
euskaldunak dau here sen gatza
itz egiten dabenian;
batean diño, ene semia
biotzaren harrenian,
bestean diño ene semea
oituraren izenian.

Gaurko ekintzak bultzatzen gaitu
buru biotzez lanera.
gure izkuntza zabaldu dedin
zelaietatik urira;

egiz, eder da ibar aide au
euskeraren solasera,
Euzkadi oro eder izango
euzkoen izkuntz-erara.

Ezin dot aztu, ezin dot itzi
iñola esan bagarik,
erri au sortu eben jendiek
artistak ziran barnetik;
biotza dardar, burua dizdiz
izan ebezan sortzetik,
izkuntz argia, hardin bagea
atareaz odolletik.

Gizontasuna da euzko lore
uri, haso, mendietan,
euzko jatorra dagon tokian
izar hat dago goietan;
zeru altutik ha-letor legez
argi dagi hatzarretan,
here herbea, lotsaz, artzen da
munduko legedietan

AUSNARTZEN

Egun ontako alkartasuna
zer dan nai dot jakitia,
izkuntz eder au sortu ehenean
arhasoen irudia;
haso ta mendiz ihili ziran
sortuz euren izkuntzia,
andre ta gizon euzkotar arek
doguz hizitz oiñarria.

Begira nago ikusi nairik
gure asaben sustraia,
huru argidun. biotz sendodun
giza talde leiñargia:
herezko legez, alan hear ta
sortuz Euzkadi maitia,
erentzi on hat itzi euskuen
zelai orlegiz jantzia.

Baiña danetan ederrena da
izkuntza urrezjantzirik,
irudia ta jakituria
beragaz dituelarik:
euren erako, euren gisako
eginik oso osorik,
munduan diran elertilari .
asko daukaz arriturik.

Bene benetan, aldi artako
Aitorren seine argiak,
ez euken naste barregarrik..
buruak argiz heterik;
izadiaren edertasunez
dizdiz eukezan hegiak,
larros orriak zirudiela
euren itz zoragarriak.

Euzko leialak, ongi etorri,
arbaso zelai ontara,
euzkoen izkuntz zoragarria
abegiz gozartutera:
geuria da-ta izkuntz garbia
eguzki erreñutara,
euskaldun jator izan gaitezen
arbasoen argitara.

PAULIN'ek

IBILLALDIETAN

Joan ziran egunetan, egunkaria irakurten nagolarik, izar baten dizdireak jota hailitzan, barri batek bizkortu ninduan, au da Ardantza gure lendakariak Mexiko'ko lurretara egin eban ibillaldia.

Ibillaldi ori, baleiteke Euskalerriko enpresadun gizonakaz, Mexiko'ko Laterri Batuetara, lana lortuazoteko ikustaldi edo begirakada bat emotera joanda egiña izan zala.

Aspaldion, Euzkadi ezeze, Europa guztian, lanak nekeztu, mw-riztu egin dira, beraz, lanerako bideak urrundu. Gainera, antxiñako euskaldunen izen ona be, makalik ageri data dirudi. Ez da arri-tzeko ba, lendakariaren asmoa, aurrez-aurre gauzak argi eta garbi azaldu eta ango aukerak ausnartu gura izatea.

Dana dala, emen, geuretik ur beintzat, laterriko egunkari edo aldizkari batzutan, ikustaldi onek iñun diran izkanbil, gorahera eta eztabaidak sortu ebazan. Politikazko kontuak, antza.

Orraitino, Azurmendi'tar Jose Felipe, gazetariak iñoanez arrera ona izan ei eban lendakariak. Mexiko'ko Jai-Alai frontoian pelota partidu bat ikusteko aukerea izan ehala eta heretan omenaldi bat eskeiñi eutsela, baita pelotariakaz alkarrizketan egon zala here. Euskal-gazetariakaz kolorez

beteko txalupa edo "gondola" baten be ostera hat egin ei ehan. Onezaz gainera ezkontza baten ezteitiar izan zala he azaltzen ha dogu, ez ebala geldirik egoteko asti aundirik izan Ardantza jaunak esango geunke.

Baina, ni esatera niñoiana da, Mexiko'n zenbat euskal abizen dagozan zenbatu eziña dala. Gudaostean aide egin ebenak ezeze, ariñado edo lenago joanda be asko dago, orain irurogetamar, larogei urte dala, gazterik, lanezak bultzatuta, orain itzelezko senitarteak osotzen dabez. Antxe aurkitu eben etorkizuna eta Mexiko'n bertakotuta egon arren, aal dahren guztietan, oporraldietan eta, joan-etorriak egiñaz, geurean, gugaz bate▶a euskal oiturretan murgiltzen dira.

Beraz, egunkariak irakurtean, gure erriaren arazo eta zeregiñetan dagokionari Mexiko'rentzat izan da nire gogoeta, nire gomuta atsegiña.

LARRONDO

EUSKALZALEAK - 25 URTE EUSKAL-ASTEA

Non: Eskolapioetan.

Noz: Ekainillaren 15'etik 19'ra. Arratsaldeko 8'retan.

Gaiak: Aurkezpena: Zuhiri'tar Iñaki'k.

15. Astelena: Euskerazaleak alkarteko langille ospetsuak. (Etxenagusia'tar Karmelok).

16. Asteartea: Euskerea Bilhao'n (Berrojalhiz'tar Julita'k).

17. Eguastena: Alkartearen argitalpenak (Olaz_ar'tar Martin'ek).

18. Eguena: Alkartearen egutegia (Zubikarai'tar Augustin'ek).

19. Barikua: Alkartearen ekintzak (Zubiri'tar Iñaki'k).

OSPAKIZUNA

20'an. Larunbata: Ordu batetan mezea San Anton'en.

Ordu bietan Bazkaria, iragarriko dan jatetxe baten (Dei-txartela eskatu bear da).

MARGOLARI EZEZAGUNA

Margolari ezezagun orren gauza gitxi dakigu: ezezaguna izateaz gaiñera izen hakoa dogu, here izenik be ez dakigu-ta. Ezta here erriaren izenik; ezta, ask() ala gitxi margotu ebanik he.

Dakiguna. pinturatik etzala hizi izan zan: ahadea zan. Pintore hikaiña haiña: goimaillakoa ezagutzen dogun here lauki bakarrak dirauskunez; naiz, ta egilleak geiago margotzeko astirik ez eukala ta amaitu hakoa izan, Gasteiz'ko "MUSEO PROVINCIAL"ean, hertako pintura ederren artean, lotsatu hank egotea merezi izan dau. Ori bai: goimaillakoa pintore ezagun baten izenpenaz jantzita dago: PABLO URANGA.

Eta, dakigun heste gauza hat: ez ahade margolari izenharakoak, ezta Pablo Uranga'k be, "xentimorik" ez ebalatu artu, 1937'an, Durango'tik "BITORIA'KO PLAZARA" eroana izan zan lauki orregaitik. Uranga. 1934'an il zan; eta 1937 10 koadru-lapurrok. guzurrezko firmeaz gablent, izena be ezarri eutsoen: "FIESTA EN EL CASERIO".

Guzti ori, zelan dakidan? ... Ba, lauki ori, firma barik, urteetan geure etxean euki gendualako, arik eta, 1937'ko Jorraillan, dana bertan hera itxita, Durango'tik aide egin bear izan genduan arte.

"AITITAREN KOADRUA", -olan deitzen geuntsan-etxeke gazteenok, beti hertan ezagutu izan genduan, eta nagusiek txikitatik. Aitak esaten euskunez, "ABADE BATEK" emon eutsan; ahade BERAK EGINDAKOA. Eta, AMAITU BARIK EMONDAKOA, GEIAGO MARGOTZEKO ASTIRIK EZ EUKALAKO. Aitak, atsegin ehan laukia eta amaitu hank egote arek, penea he emoten eutsan.

Franco'ren aldiaren izan zan, 1970'ean edo: Bilbo'n, gure lengusu haten etxean, Llano Gorostiza'ren "PINTURA VASCA" lihuruan, ara nun "aurkitzen" dogun "AITAREN KOADRUA", "FIESTA EN EL CASERIO" biurtuta, eta lihuru aretan Pablo Uranga'ren pintura-lanaren adierazle hakar!... Eta, Gasteiz'ko "MUSEO PROVINCIAL"ean egoalal...

Bizkor, lihuru-denda hatera ta bestera ibili ondoren Llano Gorostiza'ren lihuru ori aurkitu eta erosi genduan... Kostata, ori be LLano Gorostiza'gaz berba egitea lortuta, etxera etorriko jakula esanda, ez jakun agertu... Gasteiz'era joan eta ez gendun aurkitu laukirik... Geroago Bilbo'ko Erakust-Azoka'n, "FIESTA EN EL CASERIO, de PABLO URANGA" koadruaren kopia, neska margolari gazte batek egiña, altzari-estand hateko apaingarri lez ipiñita egon zan.

Demokatzia aldia eltzean, gure laukiaren albiste barriak: "Museo Provincial"ean egoala barriro. "Museo Pornincial"ari 1945'ean emona izan zala, baiña askoz lenago eroana hertara. Joan giñan ba, eta oraingoan, antxe bertan aurkitu genduan: axe bera zan: Abade ezezagunak egiña; amaitu hakoa; geurea; "AITITARENA", "URANGA" izenpena geituta"...

Arrezkero, beti, naiz "euskal pintura", naiz Pablo Uranga aitatu diran bakoitzean; liburu ta komunikabideetan, antxe agertu dauskue "gure" lauki ospetsu ori. Olan, urte bi dala

edo, Llano Gorostiza'ren zuzendau-itza pean emondako 'saioetan. Ori dala ta, Llano Gorostiza'gaz herba egiteak barriro uts egin ondoren, andik lasterrera, il egin zan bera.

Aurlen, 1992, Urtarrillaren 30'etik Otsaillaren 29'ra. Donostia'n, KUTXAREN ARETOETAN. Pablo Uranga'ren ertilanen erakusketa egin zanean, laukia bera, antxe ikusi genduan azkenengoz... Uranga'ren pinturen artean, naharmen agiri zala hegitandu jakun... Bete senide artean ez egoala bloan bizitasun herarizko hat eukala... Eta amaitu hakoa zalal...

Laukia, amaituta noiz dagoan esatea ez ei da ain erraza, I3aiña guretzat, Uranga'ren ezaugarri heñen hat orixe zan: here lanak ondo amaitzen ekiana zala. Ostera. orain diñoenez. Uranga k here azken aldiaren, "inkonklusio", amaitu hako antzeko, edo Iaiñotsu erea agertzen dauala here lanetan. Erakusketa orreri esker barriro, P. Uranga'ri egindako kritika guztietan "FIESTA EN EL CASERIO" on erahilli izan dabe.

Orraitiño, gero jakin dogunez, Donostia'ko erakusketara Uranga'ren pinturak eroateko lanean ibili zan hatek, "gauza arraro" hat aurkitu eutsala, oleo orreri.

Edesti guzti orregaz, lenengotik genkian, galduriko "txakur-txiki-polita"ren kantuak diñoenez, "ARTAZ BALIATU ZANA, ONGI BIZI BEDI" egin hearco genduala. Batzuk, lenengotik esan arren: "Joan zaitetze, geurea da esan, eta ekarri egizue!" Beste batzuk: "ia, esan, zergaitik dan zeuena! Zeuena dala adierazo bear dozue!" Guk, onenean be, zertarako gura genduan "MUSEO"ko koadru ori?... Eta guk, gure aitaren seme-alahak giñanaren agiria bakarrik agertu geinkean. Eta urteak igarota geroago ta txarrago!...

Bahia, guzurra, olan itxi ete leike aske?... Aundia da, bai ertilanetan eta bai beste gauza askotan, Franco'ren aldiko "istorian" oiñarritzea. Orregaitik, egiaren aide zeozer egitea ondo legoke: Beste harik, Pablo Uranga'ren izakera jakinda, -oleo ori miretsi naiz, ez miretsi- here lepotik egindako salerosketaren barri jakitean, ona jarriko zan! -Eta abade pintorea, zer? -esan eustan gazte batek-. Bai: ez ote dau ba gomuta on hat merezi?...

"FIESTA EN EL CASERIO" izena bera, desegokia gure uestez. Baserrian jaia ospatzen barik, baserritik tabernara jaiaren hat ospatzen joandakoak dirudie: aittaren urteak edo?... Dotore jantzita dagoz neska jantzaria izan ezik; onek, sukaldean untzi-garbiketetan diarduala, aittak beragaz dantzaren egiteko deituta etorritakoa dirudi.

Orain: eziña ete litzake, bateon hatek, 1918'a haiño lenagoko urteetan, margoztuten ehan ahade batetzaz zeozer jakitea? Erraz, Oiz mendi'tik itxasora bitarteko erritxoren hatekoa izango zan. Eskertuko geunke noonork zeozer argituko baleu eta guri esan edo ZER'era . P.P. Astarloa 3-2-h.-DURANGO.

EUSKO LEGEBILTZARRA

Bizkaierazko izkuntzaren aide arduratuta nagon ezkeretik, eta gure izkuntz jatorra geroago eta geiago bastertutzen doiala ikusirik, agiri au izenpetu nai dot adierazoten emoteko Eusko Legebiltzar'ari, gogorkeriz sartu nai dauskuen "euskara batu" zale guztien gañetik, arau gaiak jatorrizko Bizkai-izkuntzan idatzitakoa izan bear dala.

Jakiñekoa da Eusko Legebiltzarra'k, laster baten agindu bat emoteko asmoa daukala Bizkai'ko Foru Gizarte - Legea, barrero arautu ta indartutzeko...? baña Gizarte Lege ori, katrabillezko "euskara batuan egiteko ustea daukien ezkeretik, gure jatorrizko Bizkaiera benetan maite badogu iñola be ezin ontzat artzeko legea da, batez be gu, Bizkai'ko Euzkaldunak bastertu edo ta bapeztutzea baño besterik ez dalako.

Tamalgarria da bai benetan, gaur daukagun ebazkizun egoera larri au, batez be gure agintariartean dagon itsutasunagaitik ondo erabagi ta aztertu barik, nundik norako ta nortzuk izaten diran aundikerizko asmoak geien bat zittalkeriz aurkeztutakoak.

Gaur egun Bizkai izkuntza, zalantza barik, euzkalki aberatz eta baita be lurrez, zabalena izan arren, batuzale amorrotuak, geienak, bada-epzadako jakintasunekoak diranik iñork ezin leike ukatu, baña alan eta guzti, bai arlo ta nun naiko gai guztietan, lotsa barik eta bear bada gogorkeriz sartzen dira egal guztietan eta eureganandu ondoren, dana kakastu ta naste-borrastea baño besterik ez da iza-

ten ta batez be bizkai euzkalki gaixo onen kaltegarrrirako, ta dana bizkaitar agintarien erruz, bein betirako aurrez aurreko eztabaida baten ez sartzeagaitik gagoz gagozen lez, irakaskun ta artu emon guztietan, erriak edo benetako euzkaldun jatorrak ontzat artzen ez daben "EUSKARA BATUA"ren-gana makurtuta.

Jakin dogunez, Legebiltzarra'k laster baten, agertuko dau euzkeraz idatzita Bizkai'ko Foru Gizarte Legea, eta or aurrenengo dabiltzazen "jakintsu" ta batez be euren norberenkeria irudittu naia, edo ta buru jabetasun entzutetsuaren billa dabiltzazanak, euren burua agertutzearren bape ardurari ez daukienak Bizkai euzkalki eder au "euskara batuaren" bidez zikinddu eta baita be suntsittuarren ardurarik ez daukienak, i noiz arte egon bear da ainbesterañoko jasan-eziñ au?

Orrexegaitik, bene-benetako samintasun eta baita bere barru - barruko garrasi sutsuagaz eskatzen dautsat Eusko Legebiltzarri jatorrizko bizkaieraz atara dagiala BIZKAI'ko FORU GIZARTE LEGEA.

Ondarroa'n 1992'ko Otsaila'k 29'n

MARTIN GARZIA "GORRI"

ENTZUN

Zuk nai dozu EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren 25n. urtean maite dozun erakunde oneri oparitzu bat egitea?

Geuk esaten dautsugu zein dan oparirik ederrena: Bazkide barri bat eta batera ZER aldizkari onen arripedun izango dana aurkitu egizu. Bat baño geiago al ba'dozu obeto.

Ez da ori ain gauza gaitxa.

Egin zuk be zerbait EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren jai aundi au ospatzeko.

Opariagaitik, aurretiaz, gure eskerrik beroena agertzen dautsugu.

EUSKERAZALEAK

DANIEL GOIOAGA JAUNA

Daniel GOIOAGA NIZETA Anaia, Zeanuri'ko semea, Malaga'n 1992'ko martiaren Lean il zana. Aren gurpuari, ainbat urtetan bertan lan egiña zalako eta bertoko seme kutuna, ementxe emon jakon lurra, illeta ospe aundikoa egin ondoren. 76 urtekin il zan, euskaldun langille ta zintzo au.

Aurtengo Aste Santuz, apirillaren erdirantza, Zeanuri'n, Undurraga'n Garizuma ta Aste-santu lanetan nintzala, leenengo Daniel Anaiaren anaia eta gero aren loba ta billoba euren senide maite ebenak sentimentu aundiz urreratu jatazan euren senidearen azken-agurra-aren barria emotera. Nik, arein hiotz saminduak poztu ondoren, ZER'en idatzita nebala zerhait Anai jakintsu ta langille aundi onen barri emonez. Eta, heti be eder yatalako, euskaldun jatorren barri emotea, emen emoten dot an erreguz eskatua; agindua bete bear da-ta.

Seme argi ta argi asko emona dozu Zeanuri. Lur ederra giza-seme ta emakumetan, Jainko-seme, eleiz-zale ta irakasle, mixiolari ta biotz ederretan; joandako urtetan eta gaur-egunetan. Izadiz leku ezkutu ta bizkorra, seme-alaba azkar, argi ta ongillez. Orretariko bat dozu Goioaga Anaia.

Berton munduratu zan Daniel Goioaga Lezeta, anaia Badajoz'en irakatsi ta irakatsi bere bizitzako urterik geianak. 1916 ko apirillaren 16'an.

Aurreko illetan, Marista Anaiak gaxoentzat dauken Malaga'ko etxera eroan eta an il zan; illetak egin jakozan eta an eta emen egindakoaz arriturik gelditu zan jentea; angoak eta emengoak, ikusia ikusiz gizaseme aundi ta santutzat joten ebela. Orrela zan, izan be. Zeanuri'k lendik be eukia, gero Daniel Anaiak lan egin eban leku guztietakoak orixe autortzen eben ao batez.

Bereala ainbat eta ainbat orri ta orritxo idatzi ta zabaldu ziran aren goralpenetan, gizon aintzagarri aren izena ta gomutea bazterretan zabaldu zedin, bere jai-

terrian eta kanpo-errietan, Badajoz-aldean batez be. Benetako maitasu-eguzkiaren argi-izpiak lez zabaltzen dira.

Bere errian egin zituan lenengo ikasketak. Etzan motela, eta erakus-zaletasuna be orduantxe sortu jakon barruan. Etorri-barriak lez ziran Frantziatik Euskalerrira Anai Maristak, eta berak orrein arteko izan nairik, euron artean sartu zan. Gipuzkoa'ko Anzuola'n ain zuzen be, 12 urtekoa zala; marista abitua artu eta lenengo saioak Azpeitia'n eta Zumaia'n egin zituan; emen arrapatu eban gerreak, gogor samar.

Euskalerrian bizi izandako len-urteak izan ezik, Daniel Anaiak Badajoz'ko Ikastetxean, eten barik, erakusketa lanean, emon ebazan here bizitzako egun guztiak. Osasun onekoa zan, gorputzez eta arimaz, orixe erakutsi eban urte luzeetan Karmengo Kolejioko irakasle izan zala, eta on diño, opor-aldietan berariz here errira aldatu ta emen ikusi oi ebenak.

Aren urte luzeetako lan txalogarria onetsi nairik, Badajoz'ko Aiuntamentuak 1976'an bertako Seme kutun izendatu eban. Aizeak erasotako pago zarrek be azkenez amor egin bear, bardin gizon langilleak be, Daniel Anai zangarrak be. Gaixorik egoala, Marista Anaiak euren gaxoentzat an daukien gaixo-etxean it zan 1992'ko martiaren Lan, 76 urtekoa zala. Bere gorpua, alan be, Badajoz'ko ortu santuan datza.

Bego antxe, azken biztu-egunerarte, angoak eta emengoak maitatua.

AITA ONAINDIA

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñita eta 1.200 pezeta dirala idatzita. Txartel on sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

IRU ILLABETE BENIDORM'EN

ZOAZ EUSKALERRIRA

Berna-bizi dogu euskalduna; mundu-zear, gaur emen eta biarango uri ta mendien ikerle dana. Sarri, geure erri ta etxea baiño kanpo-aldeak maiteago doguzala erakutsi oi dogu errialde, itxasegal eta mendi-aldatz legorak. Eta andik gabiltzanean bertatik diñogu: "Ez dago inun gure erria langorik!" Opor-aldi baten, esaterako, zetan zoaz asao zeure erri, gaillur, itxaso, bazter ikusgarriak itxita?

Ez dago txarto erbesteak be ezagutzea; gure sorbaldez beste aldetik zer dagoan jakitea. Orretan gabiltzala au be ikasi daroagu, ots, geure lurra, arna-lurra baiño obeagorik guretzat ez dagoala; edegi begiak, ibilli, jolastu, billa atsegiña, alan be geurea onena. Mundua arakatzuz Iparragirre, baiña biotzak inotson: "Zoaz Euskalerrira!" Benidorm'en nintzala, gaur Madrid'en bizi dan batek esaten eustan: Ni jaiotzez euskaldun izanik, gaur Madrid'en bizi naz, baiña euskal kezka bizi naz neuretarrez etena".

LANA, IKASKETAK...

Alan be, leen eta gaur, euskaldun asko urrindu jaku geure lurretik, lana, ikasketak, bildurra bitarteko dala; osasun-billa ez gitxi, neguz eta udaz. Benidorm olako asko-askoz beterik daukagu, urte osoan, ilia bete edo geiago egitera ara joanda; autobusez, egazkiñez, ez trenez ainbeste, aukera ederra daukazu joan-etorria egiteko. Ez da garestia be, urteetan aurreratuentzat batez be.

An ba-dagoz otelak orretan, au da, emengo jentea ara eroan eta ekarri, kotxe ederretan aukeran egiteko ardurutzen diranak: Benidorm turismotik bizi da, ia oso-osoa, eta orretan saiatzen dira, Mediterraneo ertzean ondartzatza, ur-epel, egurats toki luze zabalak, otel pillo ikaragarriak, denda dizditsu, edari ta jatetxe zuri-zuriak, musika ta dantza lekuak guraiña, izkuntza guztietan.

Emengoak be orretan diardue batzuk. Euskaldunak lentxoago eta orainez dira gitxi orretan arduraturik eta bertan bizitzez dagozanak; ni angoo iru illabeteak osoturik, etxeratu nintzan aurretxoan, onako ogeta-amarretik gorako pixu bat bedeinkatzera deitu eusten Dima'ko andra-gizon batzuk; senarrak leen be Banku-Bizkaian an lan egin eban, angoo giro ta bizimodua, eta orain zartzarotua here osasunerako be leku ona zala-ta, an erosi dau pixu bat. Eta aurretzean, here erriaz aaztu barik, an biziko da jakin ez zenbat urtetan.

DEITU ETA ERANTZUN

Urte batzuk dirala, Gautegiz-Artia'n nengon Aste Santuz autor-tu eta itzaldi batzuk egiten, eta asti-une baten Kortezubi'ra eroan ninduen angoo apaiz jaunarekin berba egin eta eleiza jagia ikusten; apaiz orrek daroa, Jose Felix'ek ara Benidorm'e'ra, "Vista Blanca" otelera doazan euskaldunen ardurea, eta ordeko billa ebillela esan eustan; nik ezetz, oso lanperatua nenbillela; geroago igaz, Larra'ra

etorri jatan ia joango nintzan erreguz esanik. Eta bigarrenez ezetz ukatu eziñik, baietz, joango nintzala, erantzun neutron. Eta ona ni Benidorm'en. Ez naz damutu etorriaz.

1992, Erregeen biaramona. Esan jatanez, goizeko zazpirak eta amarrean, Zornotza'ko kale nagusian nengoan Durango'tik etorren autobusa ni eta gaiferakoak, naikoa, Benidorm era eraoango ginduzana. Arratia'n eta Bilbo'n artu genduan jente geiago eta bete-bete egin zan gure tarranta; eta Gasteiz'erantza. Emendik Haro alboraturik, Logroño, Kalagurri, Tudela eta Gaillur laño itsu-itsupean egozala, Kariñena, eta beste ainbat errixutarako bidea artu genduan.

Zaragoza'ko probintzian eta Teruel'goan ekinaldi galanta egin ondoren, mendi, zelai ta landa legor Zugatz bako ikusi genduzan-an, Teruel uria baiño pizkat lenago jatetxe bat, El Milagro, txoferrak eztarria eta sabela ase-bustitzeko dauken jatetxea. Bazkari polita berton. Eta aurrera Teruel ezkerrean izten dogula. Ekin eta ekin, illuntzen asi zan. Kotxe gitxi bideetan. Gernikerako bidez, Autzagane'n ara-ona naikoo geiago noski.

Or Benikasin itxas egalean, karmeldar gogartetxea, eta Kastellon, eta Balentzia Zabal-nasai laranjaz beteriko landa berdeakaz... Or azkenez Benidorm, Alikante'ko probintzi barruan. Illuntzeko zazpirak jota daukaguz. Euskalerritik urrun, ementxe biziko naz irubat illabetean, aize, eguzki ta jentez arrotz legez, Vista Blanca otelean. Derramador kalean itxi dogu ekarri gaitun kotxea, txoferrari "Ezkerrik asko" esanez.

Kolore zuria dau otelak, orain urte asko ez dala jasotakoa, bealdeko jantoki, areto, ziñe, sarrera, urtegi eta lau pixu goi daukazana. Eldu, mailladi nasaitik jatsi ta sarrerako aretoan gagoz. Bakotxari emen gagozan bitartean izango dogun gelea, bakarkoak eta biñakoak geienak, izentatu dauskuez. Goi-gailluz geletara igon, laga bakotxak here gauzak eta apaltzera; eta ondoren lo gozoa, nekatuta be ba'gengozan eta.

FEDE-GIROAN

Urrango goizean, bederatzietan, gosaltzen gengozan, gu eta gure aurretik an egozanok; egunero orrelaxe. Ondoren mezea, ziñe aretoa bete-bete egiñaz, au be amarretan, egunero orrelaxe, astegunez naiz igandez; bete bearrezkoa etzan an-en, guk olantxe: euskal meza, erdeldunak be ba-zirala-ta, irakurgaienak eta kantaren hat erderaz egiñik be, guk euskeraz, kantu, otoi'tz eta abar gogotsu. Mezea, geienez, norbaiten asmoetarako esan oi neban. Autortzak be ez nebazan gitxitan egin; zapatu arratsalde baten, bertakoak eskatuta, alkar-autortza ospatu genduan, ondoren mezea eta eunetik gorako Jaunartzea.

Gero, osagillea, egunero, alboko gelan geunkelako, inor osasunaz ondo ez ba'ebillen, aregaz egonik, bakotxa azke zan goiz guztirako, ordu-batak arte bazkal-ordurarte, ondoen eritxona egiteko, paseo-lekuan, ondartzan naiz kale-zear angoo aizea artzeko.

ITXAS-E,(;ALEAN ETA ,IATEN

Benidorm'ek itxas-egal luze-zabalean (iru kilometro lez ei daukot lute) paseo-leku ederra dauko, eta eguraldi zirimirri hakoa danean. eguerdirantza ona jotzen dau jenteak, izkuntza guztietakoak, eundaka ta millaka batten dira hertan. Ni he, gure oteletik ur-ur egiten dalako, lenengotan hate/. he, hazter arrotzak ezagutu arte. arantta joaten; etziran gitxi euskeraz mintzatzen tiranak.

Jatorduak, eguerdian ordu hatetan eta illuntzea zortzirak eta erdietan zintzo zaindu hear tiran. "Self servis" tankeran jaten genduan, eta norhere kasa ezin tirkin egin. Mai lute hitan eukiten genduan jatekoa; lenengo tresnak artu eta gero janaria, ogia. ortuari pizkat, zukua, indaba, garbantsu, txilista naiz beste egosi hat; gero beste plater haten okela, arrautza, arrain edo beste zerhait, hakotzak nai aiña, eta azkenez frutea, laranja edo sagarra geienetan.

IBILLALDIAK ETA POZA

Jantokitik kanpo akeita edo kamamilloa, Mk au artzen nehan; gero, hesodun aukietan jarririk, konta-kontari lute sanwrra egiñik, edo ordu heteko bazkal-ostekoa edo aurretik eraturiko ibiltaldia egitera. Batzuk, eguraldiak lagundu ezkerro, ondartzara joaten ziran, naiz bertan etzunik egoteko naiz ur-ertzean ihilliz anak kresaletan sendotzeko. Beste hatzuk, gazteak bereziki, alboko mendietara igon oi ehen, ango bazterrak eta goibeak ezagutu ta miresteko; lenengo iru illebetetan arin gautt.en ehan eta hizkor etxeratu hear.

Aparia esan dot, zortzi terdietan, eguardian let. noberak nai beste, artu eta serbidu; gero izketa luzeak geleterarte. Egun baten bai ta bestean ez, amabiak arte musika eta dantzea. Ara doozanak bai dirala dantza-zale! Oiñak zortu ez daitezcan, eragiña hear ei dahe! Zaar eta gazte, alargunak izanik be, anka azpiak jorratzen zoli he zoli! Bigarren hatzuk herton dantzarik egoanean. edo egun bitartean, alboetako oteletara jo oi ehen. Esan emen goragotxoako "Capypso" oteleko aretoari! Ba-ziran herandutxo etxeratzen ziranak be, eta ondoren istilluak!

URIA ZELAKOA

Benidorm uri ederra danik nik neuk ezin nengike esan. Turisotik hizi da eta agintariak (len sozialista bat, gizonezkoa eta gaur, arek, miin txarrak diñoenez, txarto egiten ebalako, emakume hat) ardura aundia ipinten hazterrak txukun eukiten.

Etxeak eta otelak, alan be, azken boladan eskabide geiegi zalako, jas eta ordena eskaxe egiñik dagoz.

Toki all berez, lau aldeetatik hegitu ezkerro, ezta motza: itxas-ertza, aurrez-aurre, uretatik beret jaiota lez, arri-mokor zakarra, lenagoko kañabera eta olibo-sail iparretik gora doan lautada eundaka otelez, goitasun aundikoz josia; asarre danetan itxasoari eusteko sortaldetik egurats-toki baliotsuz ornidua.

Garai baten emen etzan amets bat baiño, otelak eta otelak alkarren gain jaso baiño; euskaldunak be ortan jardunak doguz, "Etxe Zuri" eta antzeko izenak azgiri dira Otel batzuk.

Oteletatik geienak ez dabe eder-izate aundirik, goitasunak damotsena izan ezik; nik bat, begi-zoli, ogei ta amabikoa miretsi neban. Kaleetan, beraz lau ta erre zana artez eta dotore jartea, emen be en-i askotan; Udaletxearen erruz, egin danez, naste barre-garriz pillotu dira inguru ta bazterrak.

Erri baten, etxeak, kaleak eta paseo-lekuak markeratzean, ez itxi nik ikusi dodanez, arkitektura-gaiak etxe-jasotzaillen eskuetan, orrek diru-billa dahiltz, ez eder-billa.

Antxiña baten arrantzale-uria zanean daukazu Udaletxea, eta here zar-itxuran, ba-dau zer-ikusia; gaur Benidorm'ek, otel moltzo ikaragarriak kendu ezkerro, alderdi onetxek dauko eder-haliorik geien.

Ego-aldeko mendi eskergea baten oiñean dago kokatua, egal guztiok etxe ta txaletez heteak. Nire oteletik urrin sanaar kilometro bira let dagoala he, atsegin jatan arantta joatea. Arako hidean daukazu gainera Karmengo Amaren eleiza ederra; herton daukagu igandero, euskaldunentzat euskerazko mezea, bertoko eleiz-arduradun ain zuzen be Abadiño'ko alaba karmeldar monjea dala.

IBILTALDIAK ETA AUKERAK

Aukera gendun, bazkal-ostean, autobusean. dubarik, ibiltaldi eder bat. Otelen oitura let dogu au. Bazkal-ostean, aurretik itz-egindako autobusa etorten jakun iruretan oteleko atera, eta hertan sarturik, arratsalde ederra emon oi genduan nai genduanok.

Ur egozan errietara tan geienetan: Villajoyosa, Kalpe ta abar, baita urrunago be Alikante, Eltxe, Guadalest, Santa Pola, Guardamar. Gau-txangoak he eratzen ziran, eta egun guztikoak Balentzia'ra. Cartagena, La Manga, Murzia eta inguruetara. Leku politak ikusteko aukera genduan. Kalpe'n esaterako Hach'eko arri-mokorra eta here portua. Txango oneik sarri txokolate, zapata edo narru fabriketara izaten ziran, zabalkuntza egiteko, eta ezta esan bearrik beti jausten tan zerbait.

Club Internacional del Lihro eritxonak be, igandez jakiña, ainhah itzaldi eta erakuste egin oi ebazan here liburu eta gauza baliotsu askorekin. Beti saltzen tan zerbait; txokolatetan eta jantzetan beste ez, alan he, liburutan: an eta emen, kultura-zaletasun urria, antza danez. Nik liburu pillo batzuk eskuratu nitun.

Jai-zalerik asko nainon. Neguz naiz udaz. Jenteak zer eskatzen, axe emoten, axe eskintzen, baita kale zabaletan he. Benidorm'ek ba-daki jentea zelan erakarri. Erlejiño kontuan be, Benidorm edo emen bizi diranak, ez dira atzenengo; Abadiño-Mendiolako moja-txoak onela iñosten: "Iñor dudaz ba'lego, hetor domeka nai astegun Karmengo Amaren eleizara". Astegunez be an, jai aundietan lez, daukazu jentea meza entzuten.

ETXERANTZ

Eta beste gauza jakingarri ugari esateko itxirik, atsedendu bedi emen nine luma. Iru illabete osotuturik, euskaldun talde batek, beste batzuk aurretik egin eben let, geure pardelak leporatu genduzan goizeko zazpiretan, eta illuntzirako etxeratuko ginduzan busean gengoan.

Arunzko bidea onuzkoan be egiñik, Balentzia, Teruel (emen bazkaria), Zaragoza, Logroño, Izarra atzean geratzen ziran gain edurtuz beterik. Geure en-ian gara, Arrigorriaga, Bilbo; jente pilloa itxi dogu emen, Zahalburu kalean. Guk aurrera, Durango eta Kortezubi'ra ante. Ni Zornotza'n jatsi naz bertokoakaz. Etxano'ko andra mazal batek amari itxaroten dautso here berebil eta seme-alaba bigaz. Arek narroia, ni be Larra'ra.

AITA ONAINDIA

ETXEKO MAITASUNA

Gizakiak gizarterako egiñak gara eta on familia batean agertzen dan arazoa da. Beraz, inorenaganako maitasuna ere famili bateau agertu bearko da. Famili bateau sortu eta aziak gara eta maitasuna hera ere gure etxean ikusi eta ikasi genduan.

Jesus'ek berak ere izan zuan famili hat eta etxe bat. Gurasoak nola maitatu bear diran, berak irakatsi zigun. Egia da maitasun on ez zala bere etxe barman agortu, mundo osora zabaklu gabe.

Lagun-urkoa maitatzeko agindua, norheraren etxetik betetzen asi bearko dogu. Nere lagun-urkorik gertuenak, nere aita-amak dira eta nere seme-alahak. Guretik urbillen daudenak, gure senitartekoak dira. Orra nundik asi.

Gurasoek saiatzen dira maitasun on agertzen, heuren semea-labeentzat etxea, jantziak, janariak, ikastetxeak hillatzen... Zer, ez? Jainkoaren Erreinuan seme-alaha oiek sartu ditezana ere alegendu hearco (lute).

Seme-alaba geranok, herriz, erantzun ona eman hearco diegu, gurekatik ainheste Ian egin duten guraso oieri. Eurentzako geu izan gara gauzarik aundiena eta garrantzirik aundienekoa. Esker ona eta maitasuna agertu hearrean gaude.

Nola? Jesus'ek berherak erakusten digu nola: Ogeita amar urte bete zuen artean, Nazaret'en here gurasoen mende bizi izan zan maitasunez eta alaitasunez.

Neuk ere asmo auxe artzen dot nere etxekoen ar-emanetarako: Gauza guztien gaiñetik, maitasuna agertzen duten egintzak egitea. Jesus'ek Nazaret'eko here hizi illun aretan, orixe irakatsi zidan, geuk ere nola bizi ikasi dezadan: alai eta pozik, ez izan kanpo-larros, etxe-mazuzta: kanpoan alai, etxean asarre.

Maitasuna zahaldu etxe barruan, larrosa usai-gozodunaren antzera; ez agertu legor eta kopetillun, biotz-gabeko baten antzera.

Urkamendira kondenatu zuten gizarajoak auxe eskatu zien ilko zuten agintariei: Urrutian bizi zan here ama xaarrari, illean bein, il ondoren, here eskutitzak bialtzeko. hera oraindik bizi halitz hezala. Eta, orrela. il aurreko egunak, amari idazten igaro zitun, here bizitzan etxean igarotako gertakizun gozo guztiak gogoratzan... Urkatu zuten, baña ama xaarrak illero here semearen berri gozoak artzen zitun, hera il zan arte...

BIZITZA JAINKOA'RENA DA

Geu ez gara geure biziaren jabe. Jainkoaren doia dogu eta bizi ori, bai geurea eta bai geure lagunurkoarena ere, maitatu egin bear dogu eta here aide jokatu.

Maitasunezko pakean.

Maitasuna da-ta biziaren sortzaillea; eta gorrotoa, eriotzarena.

Jainkoa'k mundua sortzean, munduaren edertasunik ederrena, bizidunak izan ziran: Belar eta zugaitzak mendietan; arraiñak udetan; egaztiak aidean; ahareak eta gizakiak lur gaiñean.

Guztien burn eta guztien artean ederrena gizakia: gizona eta emakumea. hiak Jainkoa'ren antzeko, munduaren errege eta Jainko heraren seme-alaba.

Bizia dogu doairik ederrena eta doi guztien oiñarri eta sustrai. Inñori hizia kentzea, okerkeririk aundiena da, doi danak eta eskubide osoak kentzea da-ta.

Bizirik gahe ez da besterik ezer mundu onetan.

Orregaitik du garrantzirik aundiena onela Won Bosgarren Adinduak:

IÑOR EZ IL.

Agindu on alderantziz, ipintzen ha'dogu. era onetara irakuriko dogu:

INOREN BIZIA GORDE.

Bai jaiotzeko dagoen aurrarena eta hai gaxotasunez edo zaarrez eriotzatik gertu daudenena ere.

Bizia gordetzeak ha ditu herarekin beste agindurik ere: Bizitari eta osasunari kalte egiten dietenak baztartzeta, ez da-ta naikoa "hizia ez kentzea", 5'garren Agindua betetzeko. Bizia here osoan bete-betea izateko bear direnak, oiek danak errespetta bear dira eta aurka direnak aldentu: Indarkeria, torturak, esklabutza, drogak, gosea, emagaldukeriara beartzea eta abar.

Irugarren Munduko Erri beartzuei, ogiaren orde, armak bialtzea, alkar erail ditezana... Aur-galdu eta Zaarren eriotzari buruzko Legeak... Munduarentzako bearezko diren janariak erre edo izkutatzeta merke-aldia gertatu ez dadin...

Okerkeri astunak dira onek.

Zergaitik gure aurrek. Olentzero eta Iru Magoei jolasteko armak ertzen dautsoez... Zergaitik telebista eta zineetan ainbeste indarkeri, sexoarekin naastata, erabiltzen da etenik gabeko saioetan... Orrelakoak ikusita geure aurrak, eta aur ez direnak, zer ikasi bear dabe euren bizitzarako... "Zer ikusi, ura ikasi", gure aurrekoen esana da.

Eriotza dakarren gorrotoa geure biotzetik kentzea, on be Bostgarren Agindukoa da.

"Zuk egiña da mundua / Zuk lurra eta zerua
Zuk egiña da mundua / Eta amaren muxua". (Lertxundi).

DITUGUNAK ALKARRE, KIN BANATZEN

Jaunak egin ditunak alkarrerik banatzekoak dira. Gaurko gizarte onetan hatzuek geiegi eta geienak gutxiegi: bizitzeko bearrezkoak diranak ere ez. Ori al da Jainkoaren asmoa? Ez, orixe.

Solidaritza, gureak gizakien artean banatzea, orixe da Jainkoa maitatzeko erarik onena eta ederrena:

– Ator nerekin zorioneko ori: gose nintzan eta jaten eman zenidazun...

– Noiz, Jauna'?

– Gose zegoanari jaten emandakoan.

Aberastasunak kalte egiten al diote gizakiari? Gizon-emakumeak diruaren morroi jartzen diranean, bal.

– Eziña da bi jaubeen morroi bitten.) izatea... Ezin deikezute Jainkoaren eta Diruaren morroi hater' izan... Bat ala beste... Jainkoa'ren morroi ala Diruaren morroi.

Gaur eguneko ezberdintasunak ikaragarriak dira gizartean. Munduko ondasunak gero eta esku gutxigoetan daude... Bakoitzak geure hurua geiegi maite degulako, hesteenak ere geuretzat biltzen dituguz. Eta, hide orretatik, gero eta ezberdintasunak aundiago.

Zertarako ainbeste? Gordeta edukitzeko. Eta, gordeta daudenak zertarako hallo dute geiegizkoak diranean? Bestela ere...

Onela zion Orazio poeta jentillak: Nullus argento est color / avaris abditio tervis = Lurpean gordetako zillarrak ez du ezertako balio.

Legeko Zazpigarren eta Amargarren aginduek diru gosearen aurka doaz: Biotza diruarengan ipintzen ba'dogu, diru-billa asiko gara neurririk gabe, eta, errez-errez, hesteenak diranak ere, geure altxorrean pillatu dituguz.

Jesus izan da gure betiko eredu: Aberastasunari uko egin zion; beartsu bizi izan zan, zituenak, bizia ere hai, besteen aide emanez. Gu here antzeko izatea da Jesus'en naia eta gure ondaneekin bearrean dagoanari laguntzea, orixe da bera maitatzea eta bere naia betetzea. Gure eskuan izaten dira artzeko zabal eta emateko estu...

KRISTAU EGIZALE

Geuk, guztiok, badogu egia entzuteko eskubidea, baita egia esateko bearkizuna ere. Jesus'ek egia esan oi zuan beti. Onela esan zioten bein beure etsaiek:

– Badakigu egizale zerala eta egia esateak ez dizula iñungo bildurrik ematen, esan eiguzu ba, zillegi at da Erromako Enperadoreari zergak ordaintzea?

Bere etsaiek, eurok, ezagutu zuten Jesus'en egizaletasuna.

Neure egia auxe izaten da: Nere huruko pentsamentuak eta nere aoko itzak, biak alkarrekin hatera ibiltzea. Ez, bat pentsa eta beste bat esan. Ez, beltz pentsa eta zuri esan. Ori "zurikeria" da: Bakoitzari berak entzuk nai dituenak esatea, naiz gezurrak izan.

Baña, Jesus'ek ez digu orrelakorik irakasten, hestela baizik: – Bai danean, hai esan eta, ez danean, ez esan, hesterik gahe.

Egia esatean, zuzentasunaren legea betetzen dogu, lagun-urkoarekin zuzen jokatzu. Eta, lagun-urkoa maitatzeko, orixe da lenengo oiñarria: zuzen jokatzua.

Baña, gure inguruan gezurra dabil pil-pil. Bein bateau, Egia munduan zehillera, loak artu omen zuan arholape batean. Orduan Gezurra etorri eta Egiari bee soñekoa kendu omen zio eta, arrezkero munduan Gezurra omen dabil Egiaren jantziak soñean dituela.

Gezurra esan nuen Getarian eta ni baiño lenago zan atarian. Gezurra bereala arrapatu izan oi da, ankamotza dalako. Okerkeri aundia da Egiaren aurkako pekatua, lagun -urkoak bearrezko duen eskubi hat kentzen diogulako. Baña, zenhaitetan egia gorde egin bear da, hearrik gahe egia esanda, lagun-urkoari kalte egiten diogunean. Esate baterako, here oker izkutuaq zabalduz... Izen onaren eskubidea ere hadu, eta, izkutuko okerrak, izkutuan geldituta, iñori kalte egiten ez diotenean, oriek izkutuan gorde hear dira.

Oker oiek ixilduta, beste baterentzako okerra ba'letor, orduan, ixilpeko oiek, esan egin bearko litzazke.

Gezur-zale ba'zera, egia esandakoan, ez dizu iñortxok ere sinistuko. Egi-zaletasuna, herriz, jatoritasunaren oiñarri hat dogu. Persona edo norki orreri sinisten diogu, borondate onez eta leialtasunez jokatzan duelako.

Kristauontzako Jesus berbera da Egia, eta egi guztiak maitatzean, Bera maitatzen dogu, egi guztiak bere Egiaren erraiñu eta izpillu direlako. Egi guztietan bere Egia nahari da.

Egia maitatzea Jesus eta here Aita maitatzea da.

Gezurrak, berriz, deabrua du aita eta gezur guztiak aita orren irudia daramate soñean. Liburu Santuak diotenez, asiera asieratik asi zan Eba'ri, Izakien Amari, gezurrak esaten: Ez zerate ilko eta Jainkoaren antzeko izango zerate, oker egiñez.

ANES'ek

ORRAZKERARI BURUZ

EZ INAUSI

Iragan 1992 Urtarrillaren 10-an, DEIA egunkarian zuk idatzitako lana BATUA ORRAZKERA DA irakurri ondoren, zerbait esan bearrean nago.

Orokorrean zurekin nago. Zuk esaten dituzun gauza guztiak egiak dira. Egia biribillak, gordiñak. Zuk eta nik, bearbada abia-puntu ezberdiñak izango ditugu, baiña elmuga berdiñera begiratzen degu. Zuk euskera maite dezu. Euskerak kezkatzen zaitu. Euskeraren geroari hegiratzen diozu. Neri ere berdin gertatzen zait. Baiña bizkaitarra naizen aldetik, zure lanari huruz gauza batzuk aztertzera noakizu. Ez nuke nai eztabaidatu. Ez nuke nai ase-rreru. Bakar-bakarrik gauza hatzuk zeaztu. Nere eritzia azaldu.

Euskera sustraian bakarria dela diozu, baiña adaska desherdin asko eman dituna: euskaldunok ezin ulertzerainokoak askotan. Ori egia danik ezin ukatu.

Baiña nik auxe esango dizut. Adaska desberdiñ guzti oiek enbor bereko sustraieetatik xurgatzen duten ongarririk bizi dirala, beraz, odol hereko anaiak bezalatsu dirala, eta bata besteari lagunduz, eztagola zertan iñausi, arrotz-usaidun aldaska berriak jartzeko. Borondate onenarekin elkarri laguntza ematea aski izango litzatekeala, eta ez eriotzara garamatzen izkuntza arrotzetara jo euskera batua egiteko edo euskera bat guztiontzeko osatzeko.

OBEAGOTU

Eta euskara delako garrantzizkoa, gaude batuaren aide bestela ez bait du luzaroan iraungo. (Au zeuk idatzia da).

Aldaketa egin bear zela? Noski haietz! Baiña aldaketa egiten danean, edozer aldaketa. onerako izaten dela deritzait. Kale, etxe, soro, zelai... aldatzen diranean, obeagotzeko edo etekiñ geiago ateratzeko izaten dira.

Au orrela izanik, orrek, gaur batutzat ematen diguten orrek, gure izkuntza aberastu, obeagotu, i edertu egingo duala uste al dezu? Euskerari iraun-arazi egingo diola? Luzapena ekarriko diola? Ni baiño baikorragoa zera.

Baita ere diozu. Euskara ikasi bear dutenentzat berriz, txara izugarria billakatu da. "Kontxo Atxaga Jauna". Gauza berri bat ikasten asten geranean, batez ere, utzetik

edo ezer ezetik asten geranean, gauzak zailak izaten dira edozer arlotan.

Ni eskolara joaten asi nintzanean, eta ni hezela erriko mutiko danok, ez genekian erderaz tutik ere. Ez genduan itz batik ere ulertzen. Baiña guretzako etzuten erderarik aldatu.

Etziguten txara lorategi biurtu. Gutxi ikasteko bada ere, (eta ni gutxi ikasitakoa naiz) txara barrura sartu bearra izan genduan. Oztopoz betetako txara gaiztora. Txara kendu bear zela? Kendu zuten, baiña gauzak ez dira obeagotu: leno bezala jarraitzen dute: edo gaizkiago, neket-suago, mingarriago bada txara kaltegarria lorategi jartze-ko ustetan asi ta euskera arantzadi billakatu zaigu.

BEARTU BARIK

Batua orrazkera dela diozu. Euskararen orrazkera eta jantzi jakin hat. Zure ustetan orrelaxe izango da. Baiña zuk ondo dakizu batua orren sustraia ta edatzea nun, nola, eta zertarako sortutakoak diran.

Ondo dakizu Euskaltzaindiak hatua ontzat arturik, araudi batzuk jarri ditula, bai ikasketak egiteko, eta baita edozer motatako leiaketetan parte artzeko, eta araudi oietara makurtzen eztanak, alpen-ik onena izan, "jai daukala"

Jokaera an. i ez alda beartzea, derrigortzea? Zergaitik neri erropa berria jantzi, soiñean dedana askoz ere obeagoa, txukunagoa, garhiagoa ta neure gorputzari itxura bereziagoa ematen diona bada?

Gaurko ikasle askori etzaie orrelako gauzik gertatzen. Ba-dute nun arakatu. Ortxe dituzte erderaz jositako sasi euskeran egindako liburuak, (nere etxea lekuko) eta ikasketak orrela direla medio, euskera arloan beralaxe jakitun egiten dira. Nolako jakitunak ordea?

Orretxegatik, batua orretan egiten dituzten lanik geienak (ez denak) ulertgaitzak izaten dira. Traketsak, biurriak, zikiñak.

Orretxegatik baserriar, arrantzale ta errietako jenderik geienak ezin izaten dute ulertu. Orretxegatik Basarri'k eta Xalbador'ek argi esan zuten batua etzutela ulertzen, naiz eta euskera mota orren sortzailleak gipuzkeran eta iparaldeko euskeran oiñarritutakoa zela adieraztera eman.

Ez ote zekiten euskerarik bi bertsolari aundi oiek? Ez ote dira ikasketa nagusiak egindako asko, erderaz beteta-

ko hatua orretan baliatzen, benetako euskeraren ezjakintza ez azaltzeagatik?

BATU OBEA

Ba-dakit, eta ezagutzen ditut batuzaleen artean euskerari ondo dakitenak. Askok dakitenak eta mesede asko egin dezaketenak. Baiña beraien zerbategatik edo ni ezagutzera irixten ez naizen zeozergatik, batua erabiltzeko jokera dutenak. Zergaitik? Ez ote zegon hatua on beste euskera obeagoan egiteko aukerarik? Ez ote zegon ortarako gizonik? Ba-dakigu gipuzkeran eta ipar-aldeko euskeran baliatu zirala batua egiteko, haiña... Ez ote zegon bizkai aldean aintzakotzat artzeko gizonik? Gure euskerak, hizkaitarren euskerak, i ez ote dio euskerari ezer eman iraganeke urteetan zear? Bizkaitar idazle zaarrak aide batera utzita ere, hatua asmatu zutenean, ez ote zeuden Bizkaian. (bete askoren artean) Akesolo, Onaindia, Goikoetxea, Kerexeta, Olazar, 7. ubikarai eta zerrenda lute bat, euskerari huruz zeukaten ezaupide ta eskubidea argi aitortzeko, eta beste hatzuk beren eritzia entzuteko?

On Manuel Lekuona ta Orixe aipatzen dituzu, haiña beraiek aitortutako esaldi hatzutan hakarrik.

Ondo dakizu hi gizon jakintsu oiek beste gauza asko esan zituztela. Beste era hateko hatuaren aide zeudela, baiña.. Lekuonajaunari egin ziotenari buruz, i, zer esan?

Ezta ere ez dituzu aipatzen Arenaza, Lahaien, Mokoroa, Arendui ta heste jakitun askok esan zutena. Bere garaian idatzi zutena.

Ni ez naiz emen asiko oiek esandakoa egia ala gezurra den ezta haidatzen. Ez naiz mailla oietara irixten. Baiña gauzak orrela diran jakin nai izan ezker, Latiegi jaunak idatzitako lihurura urhiltzea besterik ez dezu. Bertan aurkituko dituzu hear dan hezala zailkatuta izenak. lanak, egunak, lekuak eta heste ainhat gauza garrantzi aundia dutenak.

BIZKAIERA

Aurreraxeago onela esaten dezu. Inork ez du esan euskalki desberdinetako hitzak jaso eta erabili behar ez ditugunik. Baina inork esan ez badu ere bizkaierakoak erabat baztertu ditugu. "Zorionak Atxaga Jauna". Ba-da garaia orrelako zerbaite irakurteko. Ukulluratu zuten bizkaiera, zelairatu bear dela aitortzeko. Eskerrik asko Atxaga Jauna.

Gero onela jarraitzen dezu: Euskara batuak, nonahi-koak, eta Bizkaikoak ere noski bildu behar ditu. Eta hori

idazleen egitekoa da batez ere. Zapuzturik diren bizkaitarrei baturanzko euskararen bidez beren altxorra eskaintzeko eskatuko genieke. beraz, bizkaieradunek bakarrik egin dezakete hori.

Bizkaieradunek bakarrik? Eta zuek zer? Euskal erakundeak zer? Ez ote dakizu Fermin Iraolagoitia Jaunari zer baldintza jarri zioten, hizkaieraz idatzita zeukan lan aundi hat argitaratzeko laguntza eske joan zanean? Ezetz? Neuk esango dizut.

Lanari buruz etzioten eragozpenik jarri, etzioten ezer esan. Baiña idazkera aldetik hai. Euskal Jakintza Ministeritzatik emandako erantzunean onela esaten zioten. Laguntza izatekotan araudi berrietara lotu bear zuala. Bere lana, hizkaieran oiñarritua izan arren, idazkera batuan izan bearke zuala H, ta gainontzeko eragozpen guztiekin, bestela, etzegoala laguntzarik. Ori ote da bizkaieraren altxorra edatzeko hidea?

Eta bizkaitarrei haturanzko egiten diguzun eskabideari buruz... Zer da esan nai diguzuna? Bizkaitarrok geure euskalkian batua sartzen asteko? Zertarako? Beste euskalkien antzera zikinduta uzteko?

BATUA ULER-GAITXA

Gero onela diozu. Euskara ulerkaitza eta jasanezina ari gara egiten hegoaldekoentzat ere askotan. Are okerrago, euskararen muina ari gara jaten, berne-barnetik. Euskara bera ari gara erdalduentzen.

"Milla esker Atxaga Jauna". Baiña gaitz orren errua, i nori ezarri? Guri ez beintzat! Gaitz on ba-dakizu nondik sortutakoa den. Ba-dakizu nun dagoen. Baiña ala ere batuaren aide zaudetela diozu.

Gu ere batuaren aide gaude, baiña beste era hateko batua. Euskaldun guztiek ulertuko luketena. Euskera babestu, gerizatuko dun batua.

Azkenean onela diozu. Gaitz honi erremediorik jartzen ez badiogu, gaztelaniarren dialekto berri bat sortuko dugu. i Sortuko dugu? Sortuta dago! Oraingo batua ontzat artu zen une berean sortu zen.

JOSE MARI AZPIRI

GIZAKIAK EGINIKO IKUSKIZUNAK

EUSK.F.RATZEN

Gure Gazte-aroko Ekonomi Irakaskuntza ta gaur egun ari dana ez dira bardiñak. Aldaketak oargarri sortu-erazi izan dirala oso naharmena da. Orain ezagutzen doguzan Ekonomi Ikas-Saillak edo Fakultateak, geroago sortu ziran.

Ondiño gogoan daukat orduko ikas-gai batek GOI-MAILLA-KO EKONOMI LUTELESTI edo GEOGRAFIA izena eukata. Gai an ikusteko gerabillen idazkia, oizko dan bezela, atalka zatituta egoan eta atal baten izen-burua au zan: "**Paisajes antropogenos**".

Euskeraz idazten gagozan ezkeru, adierazpen an be euskeratu hearrean aurkitzen gara. Ortarako, erderakadaren bat ez jartzeko, euskerearen sustraitara jo bearko dogu.

Onetaxe jardun dogu ta auzi luzaro gogoan erabili ta gem, naiz-ta batzuren hatzuai garbizalekeriari jotea data esateko zioeren hat emon, "**Gizakiak Eginiko Ikuskizunak**" izan da gure itzulpena. Ez gara tar ziur asmakizuna egokiena data, haiña ausardia dan arren, idaztan oneri asniakizun berau idazpurutzat jarri dautsogu.

KALTEZ NAIZ. MESEDEZ

Lur-hazter legor eta alper, for hizi ez dan eremu bat, gizonak here trehetasuna ta gaur cgun dagozan tresna ta langai attsuakaz, toki ugari ta oiantsua hiurtu leike. Naiko urbil dagon ibai hatetik ur-oditza on hat egitea, oiñarrizkoa izango litzake.

Bein eta lekua ur-lurra itzuti ezkeru, beste zeregin eta azpies- trukturak errezago agertuko dira: Lurgintza, landaredi. zugatz-lan- daketa, etxegintza, sateroste... eta lurraldeak beste itxura bat artuko dau: Orra or ha **gizakiak eginiko ikuskizun bat**.

Bestera he jai() leiteke. Len aitatu doguzan lan-tresna altsuak gizonak crabilliko ha'leuz, eta mota guztietariko zugatzak neurri barik ebagi. lurralde abartsu hateri kalte ta aldaketa itzalezkoa egingo leuskio.ikuskitzun ez-bardin hat sortuaz.

ATXARTE, EUSKALDUNA, ETXEBARRIA

Atxarte data-ta, gaurko egunean Abadiño'ko udala ta ekologiza- le-taldeak alkarren arteko burruka be, nolabait, auzi onegaz lotuta dalakoan nago.

Norbaitek orain arte esan doguna gogoan erabilli ta gero, here kolkorako esango dau ia onelako itz-aurreak nora zuzentzen gaitun.

Ba ara, nire inguruan gizakiak eginiko ikuskizun batzuk ikuste- an, Gizarte-Auzia ta here ondorengo borroka, istillu ta matrakak gogora ekarten daustez.

Ni Deusto'n bizi naz eta aurrez-aurre "**EUSKALDUNA**" Ontzigitza Elkarrea egon zan tokia agiri da. Dana aldatuta dagon- ezkeru ezin-ezagutzuko da.

An hatzutan iru itxas-ontzi batera egiten ziranean, millaka langille ebiltzan txingurri bezela aurrera ta atzera, gora ta bera, zarata gor- tugarri baten murgilduta. norberak beren zeregiña betetzen.

Dei-adarrak ots-egiten ebanean, naiz sartzerakoan, naiz urteera- koan, egundoko gizon taldeak, baster guztietatik etorrita, errezka-

dan ikusten ziran lantegi inguruetan... Gaur ixil gogorrean, sasi ta ondakiniez beterik dagon eremu biurtu da.

Estalpe batzuk lur jo-eraginda ta euren zaborren artean karrama- rro edo grua hatzuk, getdi-geldi, beren burdiñezko beso luzeak etsi onean Jaungoikua'ri eroapena eskatzen egongo ba'lira.

Begoña'ra Zumalakarregi Etorhidetik gora joaten ba'gara, esku- ma aldean ezkurdi ortegi ta loretsu hat ikusiko dogu ta. erdi-erdian. ke-zulo goi-luze-luze ikaragarri bat, an "**ETXEBARRIA**" burdin- lantegia egon zala adi-erazten dauzkuena.

LABE GARAIK, ACENOR... KALERATZEAK

Onelako gizakiak eginiko ikuskizunak, an-emenka ikusten dira Euskadi zear. Ondiño ez dakigu Sestao eta Barakaldo'n, Bizka'i'ko Labe Garaiak dagozan lekuan, zer ikusiko ete dogun... Acenor eta abar.

Ori data ta eztata, agerkunde ta izkanhilla katez-kale egunero ikus- ten doguv. Giza-talde kopuratsuak oiuka euren eskahideak aides- ten, lenengo lerrokoak oial hat daroela idazkun bategaz, eskakizu- nak agertzen.

Eskatzen dahezan gauza guztiak hidezko ta onak dira:lante- gintzaren iraupena, lanbideen aldezipena. lantegiak kentzen ba'dira beste hatzuek ordezeko jasotea... Ez hidezko ta onak hakarrik, haita bearrezkoak he, baiña naiko zaillak atkar-antotatzeko.

EKONOMIA, ALDAKETAK ETA BURU-JABETZA

Ekonomiak here legeak daukaz ta Elkarreak sortzen diranean, naiz merkatari, naiz langintza edo beste motakoak izan, irahazteko asmoz antolatzen dira: eta ethuru an lortzen ez ha'dahe, kendu edo be.stela porroterako bidean sartuko dira.

Baiña Elkarreak gizarte-maillakuak izan eta bertan, here harrenean millaka langillek bizibidea aurkitzen dahenean, orduan sortzen dira benetako arazoak... or dago korapilloa ta ten aitatu dogun gizarte- auzia: Nola ainheste beargin lan barik itxi?

Onelako gertaera estu ta larrietan, diru-laguntza bear izaten dabe here zereginen jarraitzeko. Baiña dira-laguntza artu ta zuzentzen ez ba'dira, urtero laguntzari hegira egonaz, esan geinke ondamendi- rako bidean dagozala.

Sarritan irakurri izan dogu Elkarteren batek urteko emaitzak onak lortu dauzala, igaz baiño millaka mitoi batzuk gitxiago gatdu dau- zatako... Onelan, inoren tepotik, beti jarraitzekotan ekonomi Elkarreak baño lenago Erruki-Etxeak biurtu dirala dirudi.

Ez da au toki egokia gala sakonki erabiltzeko, alan da guzti here itaun bat egingo neuke: Euskadi'k here burujabetza ba'leuko ta, inoren hegira egon barik, arazo oneitzaz erabagia artzeko almena izan, aitatu doguzan **gizakiak eginiko ikuskizunak** agertuko ete ziran? Ez dot uste.

IDIGORAS" TAR JOSEBA ANDER

IZKUNTZATIK ERRI-JAKINTZARA

IZKUNTZA NAGUSIAK

Erakunde, arazo ta eginkizunak norberarena ez clan izkuntza ikasteko almen edo al-izate guztiak emoten dabez. Ingeles, prantzes, aleman dira ikasten diran izkuntzak, bai Akademietan haita eratzen diran txango ta ibilaldietan.

Gure lurraldietan eztago orain bildurrik seme-alabak atzerrietara hialduteko. Gero ta geiago doaz gazte-ikasleak Ingalaterra'ra, Irlanda'ra, Laterri-Alkartu'etara, Alemania'ra, Kanada'ra, Prantzia edo Alemania'ra, 3.000.000 inguru noriki ikasle.

IKASTEKO ERAK

Bultz-eragilliak askotariko era-arauak eskeintzen dahez: sendiarte-ikastaroak, urte-akademikuak, berarizko-ikastolak, uda-ikastaroak, kanpaldiak.

Era hakoitxak, era hakoitxaren lagunak euren jendarte zeatza deuke. Karlos Torre Bilhao'n dan hultzagille baten eskuhidedunak diñoanez, gaztientzat akademiku urteak; lenengoz ibiltaldia egiten dahan ume gaztientzako, ikastolarik onenak izaten dira, dan-dana eraturik dauke eta eurok hertan pozik dagoz.

Alan eta guztiz be, ingelesen izkuntzan esaera batek diñoan Iez, "One to One" = **batek bateri**, 25 urte baiño geiago dauken gizakientzat erarik onena eristen da.

Irakaslearen etxean bizi ta ikasi bakarka egiten daunarentzat, ordu guztietan irakasle beragaz gogoratu ta berba egiteak, erreztu ta eskuratu egiten dau ariñago ikasteko aren izkuntza ta zertzelada onetan zeurea aide batera itxitea da bidea.

GARESTI?

Gure "Zer" aldizkariaren irakurleak euren kolkorakoz esango dabe: zuk diñozu on guztiontzat ederto etorriko dala, eta on lortzeko eragille danetarikoak aurkituko dira baiña salneurriak be garesti izan ta zerugoitik ibilliko dira...

Baiba. Zelan ez? Zer dago orain merke gure gizaki suntsikor, erosle onetan?



Aitamen, aditze eraz, beingoan begitu egizuz: bataz beste, illeroko ikasaldiena inguratu leike 200.000 laurlekora; akademiku urte-ikastaroa 600.000 edo 700.000; eta ikastaro garestienak (one to one), gitxi-gora bera, astero 200.000 laurleko. Egun baterako 7 mille inguru bakotxarena. Eta eragillien eritxiz ezta geiegirik, salneurri beratan egotaldia, janariak eta ikasaldiak sartzen diralako.

ORBANDUTA

Idazki onen idazpuruan diñoguna "Izkuntza hat ikastek, kultura bat ezagutzea esan gura dau" nik askotan neure buruan darabilt: "Guk euskotar-euskeldunok gure izkuntza ederra, Euskerea, ondo ta sakonez ikasiko geunke, konturatuko bagiña emen agertuko doguna: "Eusko-Abendearen-Ereserkian" esaten dana. Eta, beraz, alegiñak egin zoritxar oneik jazo ez dakiguzan, edo gugandik aldendu daitezana.

ALDI BATEN GURE AMA-ABERRI MAITAGARRIA, SEMIOK GENKUSAN EDUR-BARRIA BAXEN GARBIA; ORAIN OSTERA ITXASI YAKO-ARROTZEN DONGAKERIA! AU TAMAL MINGOTSA! AU OÑAZE LATZA!

ORBANDU DALA ABERRIA!

LETONA'K

URRUTIRA JOAN?

BOGA, BOGA

"Boga, boga mariñela
joan hear degu urrutira".

Bai, urrutira joan bearra! Ez dago esan bearrik. Gure aberria ain txikia izanik, eta lengo seme-alabak aiñ ugari, euskaldunak zahalduko ditu here egoak, arrano haten moduan, biotz ikara bizi hategaz. eta joango da kezkatu eta zoli, zoriaren billa.

Amerika lurraldeak, eta ango aberastasunak ezagutu ondoren, arako joera inork kendu eziñeko hultzada bizia izango da, naiz eta sarri entzun esakun oneik: "Urruneko urreak badau here zer eragingarria. Zelan atzera egin? Urrea eta zoruna ez dira ain errez hurututzean. Buruauste eta nekeak, izerdi eta ekiñaldi gogorak jasan hear dira. "Nai badozu saria, neke eta izerdia".

Lana, Ian saria eta hizimodu ona beti izan dira euskaldunentzat oso hegikoak. Su ta ke jokatu dahe beartasun kateak birrinduteko, eta egiñalak egiñ "arriak ogitu eta ura ardoteko".

Izan he auxe da .launak giza-semeari emondako legea: "Zure hekokiko izerdiaz jango dozu ogia. Ugaritu zaiteze eta bete lurra eta menpean ezarri".

Lurraren aldetik nun arakatu eta atxurtu hadogu. Ezin esan heste ondasun dago eskuratu barik lurrean eta itxasoan. Izadia, harriz, here aldetik daukon guztia eskeinka daukozu. Naiz eta ondasun orreek eskuratzeko urrutira joan bearra izan: boga, boga mariñela.

ORAIN, NORA?

Oraiñ ez dago aberastasun eta zorion haratzik urrutiko lurraldeetan. Gaur egun, ara joan bearrean, eurek datoz etorri gurera, hizibide obearen billa.

Naiz eta azkenengo urteetan lanaren eta diruaren larriune gorriak izan, gure artean bizimodu ona zuzendu dogu eta oparo bizi be bai. Etxe-hizitza dotoreak daukoguz, osasun serbitzu osoak, autoak eta etxerako bear diran tresnagaillu guztiak. Iñoiz baño obeto bizi gara.

Baña gure urietan ez dago baserrietako zelai zabal, mendi giro eta aize garbirik. Txoria lez kaiolaratu egin gaitue. Uriko hizitzak, egia esan ba'daukoz here alderdi onak, lantegietara joateko, erosketak egiteko, umeak eskolaratzeko eta abar. Baña mundu ontan ez dago gauza osorik eta zorion beterik.

Aste-buruetan, jai-arte, opor-aldian, zer egiñ, nora jo?

Erleek aboatik, egazkada bizkorrean, loratara doazan lez, or doaz gure uritarrak. Nora? Urrutira? Bai, nunbait. Gure bideak auto-jarioz ikusiko dozuz. Izugarritzko igesaldia dirudi. "Aizea buruan eta ihilli munduan". Zer nai dabe? Eguratsaren garbitasuna, mendi eta zelaien zabaltasuna, eguzkiaren berotasuna. Gogora datorkit antxiñako eusko ahestiaren zatitxo bat:

"Txoriñoa kaiolan, kaiolan
mendira nairik zaletzen,
duelarikan zer zer edan
mendira nairik zaletzen.
Ene! Askatasuna zein eder den".

ABERRIA EZAGUTU

Astehuruetan eta jai-arte ateraldi bat egitea oso onuragarri egiten jaku. Baña, urrutira joan barik. Urrutira doazan geienak ez dahe ezagutzen gure aherriaren edertasuna, bere mendi, zelai, hazter ta txoko zoragarriak.

Aspaldi ontan Araha'ko bazter eder baten bizi naz. ANGOSTO da here izena. Bakartade gozatsua eta haketsua dozu. Artadiz eta piñadiz inguratua dago aide guztietatik. Aize garhiak leunkiro laztanduko zaitu. Erreka garhi gardenaren zurru-murruak egokiro atsenduko zaitu. Gerizpe ozkirri gozoetan daukozu mai eta jarlekuak. Eta umeen jolaserako zelai egokiak.

Kondaira zale bazara ANGOSTO'ko Andra Mariaren santutegitik gertu daukozuz Barona ospetsuen jauregia eta Fontetxa errian Hurtado Mendoza jaun aipatuen gaztelu bi. Apur bat arutzago Puentelarra eta Sobron, Ebro ihaiaren ondoan. Kalderon eta Salazar abizen ospetsuak Nograro deritxon erri txiki haten sortuak dituzu. Antxe ikusi daikegu euren gaztelu zaarra.

Baña munduko gaztelu eta jauregirik ederrena izadia bent dozu. Eta izadian, batez he, mendien gallurrak eta egalak. Oso ederrak dira emengo Batsikabo eta Gobe. Eta Burgos'egaz muga egiñik Artzena mendikate luze eta zabaltasua. Bere barrenean dago oraintsu izendatua izan dan "Parke Valderejo".

Toki eder ta baketsu ontatik doakizue bertsolariaren deia:

"Atozte aurten ere
bai Euskal-errira,
jauregiak utzirik
etorri mendira.
Ala nola txoria
txiru-liru-lira
urrezko kaiolatik
joaten dan sasira".

Aberria, Euskal-erria ezagutu, maitetu, eder-etsi, goraldtu eta aberastu egin bear dogu guztion artean. Urrutira ainbeste joan harik.

Espejo eta Boveda errietan badituzu jantoki aipagarriak.

ANGOSTO'rako hidea auxe dozu: Orduña-Berherana-Osma-Astulez-Karanka-ANGOSTO.

Orduñatik ona ordu erdiko bidea.

URIGUEN'TAR ZENON

GIZONAK JAUNGOIKOAGANANTZ

Sinismenera, eltzeo hideak ezhardiñak dira gizaki hakotxarengan.

Itz asko barik. aclibide hatzuk ekarriko dodaz.

ANTONIO, BIENBENIDA, zezenlaria

"Nire lanean, zezenak toreatzen, arrisku andiak jasan dodaz, baina aide guztietan gure amagandik artutako sinismenak lagundu deust. Gure amak Jaungoikoagan ipiñita eukan itxaropena ezin dot aztu.

Erlijiñoko gauza oneik ez dira liburuetan ikasten. Neure hizitza guztian zear gure amaren ikashide onak biotzean gorde dodaz. Gure amari eskerrak. gaur kristiñau zintzoa nazala autortzen dot".

SALBADOR DALI, margolari ospetsua

"Gure aitaren Iiburutegiko idazkiak danak ateoak ziran. Oneik irakurrita Jaungoikorik ez dala ikasi nehan...

Nietzsche irakurri nehanean. arek esaten dauanagaz arrituta gelditu nintzan: Jaungoikoa il da! Geuk il dogu Jaungoikoa!

Eta ni pentsatzen asi nintzan: Jaungoikorik ez ha'da, zelan bizi ez clan norbait il daiteke? Nietzsche ateoak hiztu ehan nigan Jaungoiko ezagutzeko naia...

Geroago Gurutzeko Joan Deunaren poemak irakurri nebazan, eta Agustin Deunaren "Autorkizunak", eta santu onen antzera Jaunari sinismena eskatzen neutsan, baina esaten neutsan: ez oral!), Jauna, geroago!...

Orain hide zuzenetatik nahail. eta nire jarrerak Jaungoikoagan sinistra aldatu dira".

ELISA LAMAS, idazlea

"Bein oso geixorik hapatean eriotzaren aurrean aurkitu nintzan. Niretzat zartada gogorra izan zan. Mundu oneta-ko gauza guztiak itxi egin hear, haita gorputVa bera he.

Ez dakit zelan esan. haiña hizitza onen beste aldean zerhait ba-zala sinisten asi nintzan. Orduan nire bizitzako gauza guztiak, tximista batek argituta lez, beste argi batekin ikusten asi nintzan. Nire adimenaz argi ikusi nehan, abere haten eriotza eta pertsona batena, ezin zala bardña izan... Eta nire itxaropena Jaungoikoagan jarri neban".

EI)UARDO TARRAGONA, politikari eta finantzaria

"Sinismenean eskuartzeko bakotxak norhere harruan erijiño-giro hat sortu bear dau. Fisika edo kimika ikasi gura dauanak zientzia orrein zaletasuna euki bear dauanez.

Gizona ez da gorputza hakarrik, espiritua be ha-da... Nik Jaungoikoarekin neure kontzientziaren hidez itz egiten dot... Zerhait on egiten dodanean poz andia emote') deust, baita alderantziz be, gaiztakeriren bat egiten dodanean".

MICE', FISAK, etxegillea

"Nik neure kontzientzia ez nehan bakerik aurkitzen, eta Gogo Jardunak egitera Joan nintzan... An host eguneko hakartadean, isiltasun osoan, neure kontzientziaren eta Jaungoikoaren aurrean hakarrik. beste gizon hat nintzala aurkitu nintzan. Neure aldaketa onegaz neu here arriturik gelditu nintzan".

JOAKIN RUIZ JIMENEZ, politikaria

"Nire sinismena txikitan oiturazkoa zan, suster gitxi-koa; baiña XXIII Joan Alta Sanwa ezagutu nehanean, nire sinismena sakondu, garbitu eta indartu egin zan. Orain sinismenak poza emoten deust...


Baiña nire fedea ez da egonean egotekoa, indarra enw-ten deust hakearen zuzentasunaren eta askatasunaren aide lan egiteko. Nik barru-barrutik sinisten dot".

**MAGI)A KASTAÑER de GIRONELLA, etxeko-
andrea**

"Ni fedearen azken mugaraino ez naz oraindiño eldu, baiña sinistu gura dot... Jaungoikoak fedea eskatzen deustanari emon egiten deustola, entzun dot. Eta nik sarritan eskatzen deustat. Egunen haten sinismenaren argiak argi egingo deustala, uste dot.

GOIKOETXE'TAR IÑAKI. S.J.

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa